



I

Sarrera

.....

2011. urtean, 2002-2010eko Osasun Planaren indarraldia amaitu ondoren, gogoeta-prozesu bat zabaldu behar dugu, baloratzeko osasun-politikako zer eredu komeni den EAerako, gaur egun ditugun premiak ikusita. Diagnostiko horrek 2012-2020ko Osasun Plana nondik nora egin adieraziko digu.

Horretarako, uste dugu beharrezkoa dela 2002-2010eko Osasun Plana ebaluatzea, ikuspegi orokorra izate aldera, eta plan hori aurrera eramaten giltzarri izan diren pertsonen eta adituen iritzia bildu behar dira ebaluazioan. Lan honetarako nahi bezainbeste jenderen laguntza izaterik ez dugun arren —denbora eta baliabide mugatuak ditugulako—, uste dugu 2002-2010eko Osasun Planeko helburuak eta jarduerak berrikusteak ikuspegi orokor bat emango digula planaren bilakaeraren gainean, eta handik ikasitakoa osasun-plan berrian erabili ahal izango dugula. Xedea ez da planean jarri ziren eta gauzatu diren helburu eta jardueren ebaluazio zorrotz eta xehe bat egitea. Planak oso epe luzea hartzen duenez, ahaleginduko gara egin diren jarduera-ildo nagusiak azaltzen eta interesgarriak izan litezkeen zenbait bizipen kontatzen.

Osasun Publikoaren Zuzendaritza
Osasun eta Kontsumo Saila